

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IBILGAILUAREN GURPILEN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF1172		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodaje-trenen mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Direkzio- eta esekidura-sistemak.	Iraupena	200
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ibilgailuaren direkzio-sistemaren mantentze-lanak	Iraupena	80
	Ibilgailuaren esekidura-sistemaren mantentze-lanak.		60
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0130\_2: SISTEMA HIDRAULIKO ETA PNEUMATIKOEN, DIREKZIOAREN ETA ESEKIDURAREN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-atalaren LB3 lanbide-burutzapenarekin, gurpilei lotutako alderdiei dagokienez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hagun-pneumatiko multzoa diagnostikatzea, konpontzea edo ordezkatzeta, gidatzea segurua eta eroso izateko, eta ibilgailuko bidaiariaren segurtasuna bermatzeko.

E1.1 Pneumatikoen egoera begiratzea: higadura-indizeari, pneumatikoaren zahartasunari eta hagunarekiko estankotasunari erreparatzea, eta ziurtatzea pneumatikoen puzte-presioa egokia dela.

E1.2 Pneumatikoen nomenklatura identifikatzea, haien fabrikazioaren ezaugarriak eta informazioa aztertuz.

E1.3 Pneumatikoaren higadura anomaloak aztertzea, eta lan-fitxan idaztea, gerora zuzentzeko edo higadurak eragiten dituen matxurak konpontzeko.

E1.4 Hagunen egoera begiratzea eta hagunetan egon litezkeen deformazioak diagnostikatzea.

E1.5 Hagun-pneumatiko multzoa makinaria espezifikoarekin (pneumatikoak askatzeko makina) desmuntatzea eta muntatzea, arretaz, elementurik ez kaltetzeko, barruan dagoen presiopeko airearen estankotasun ezin hobea lor dadin, ibilgailuko bidaiariaren segurtasuna bermatzeko.

E1.6 Hagun-pneumatiko multzoa makineria espezifikoarekin (orekagailua) orekatzea, martxaren erosotasuna bermatzeko.

E1.7 Egindako lanak kalitatekoak diren begiratzea, ibilgailuko bidaiariaren segurtasuna bermatzeko.

##### Edukiak

###### 1. Hagun-pneumatiko multzoa.

- Pneumatikoaren eboluzioa.
- Pneumatikoaren lehengaiak.
- Fabrikazio-prozesuak.
- Pneumatikoaren nomenklatura.
- Pneumatikoaren eboluzioa.
- Pneumatiko-motak, haien helburuaren arabera.
- Puzte-balbulak (mota, helburuaren arabera).
- Balbula elektronikoak.
- Hagun-motak (burdina edo aleazioa).
- Pneumatiko espezifikoetarako hagun espezifikoak.

###### 2. Gurpilen desmuntaketa eta orekatze dinamikoko makina.

- Funtzionamenduaren printzipioa.
- Erabiltzen diren kontrapisuak.
- Erabiltzen diren tresna espezifikoak.
- Orekatze dinamikoa.

**C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Trebakuntza-atal hau egiteko, gainditua izan behar da hau: UF1171: Ibilgailuaren esekidura-sistemaren mantentze-lanak.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodate-trenen mantentze-lanak